

## **Takoi-hotsa**

Izarok dendako erakuslehoan pega-pega eginda dauka sudurra. Pega-pega sudurra eta zabal-zabalik begiak, erakuslehoan dagoen zerbaitek, imanak nola, erakarriko balu bezala. Bere hatsaren lorratza kristalaren kontra ikusi daiteke, umel eta lurruntsu. Umearen harritu eta lilura aurpegia islatzen du erakuslehoak.

Amaren eskutik ebatuta doa eskolatik etxerako bidean, amarenetik libre daukan eskuan deroan ogitartekoari haginkadak ematen dizkiolarik lantzean behin. Ama estu eta prisaka doa oraindino bete behar dituen zereginen zerrenda buruan egiten duen bitartean. Maileguan hartutako liburua bibliotekan atzera bueltan itxi, afarirako arraina erosi, lan-kontuak direla-eta abokatuari deitu, farmaziatik pasatu eta amarentzako botikak jaso (eta hori amaren osasun-txartela etxean ahaztuta itxi ez badu, ai ene!) Idatzibako zerrenda behin eta berriz errepatzen ezer ahaztu ez dakion. Oinak hauts eginda. Estu eta larri, eskuak, ez bata eta ez bestea libre.

Alaba erakusleho aurrean gelditu izana balazta bat izan da Aintzanerentzat, egia esan, haren abiadurari galga jarri dio Izarok. Zer demontre gura ete du ume honek orain diotso bere buruari. Gelditu egin behar izan du, gelditu bat-batean.

-Zer dugu orain ume- esan dio murduska.

Umeari begira, ez da konturatu ere egin lehen unean denda bateko erakusleho aurrean daudenik. Bigarren begiratuan jabetu da jabetu denda aurrean geldituta daudela. Gerotxoago ikusi alabaren aurpegia kristalari itsatsita.

Beste jostailu-denda bat ez, mesedez, ospatu genuen zure urtebetetzea, pasatu da Olentzero guretik, oparirik gehiago ez, mesedez, arren eta faborez. Begiak altxatzerakoan baina, oker dabilela ikusiko du amak. Ez, ez da jostailu-denda, zapata-denda baizik. Eta

dendako zer arraiok erakarri ete du ba nire alaba, hurrengo galdera; orain arte, bere gustura zelan edo halan, hori bai, baina nire iritziz erosi dizkiot zapatak eta.

-Ama, ama, begira, begira, zelako zapatak, takoidun zapatak, han atzean han daudenak, takoia orratz zorrotza lakoxea daukatenak, begira zeinen politak!

Horixe erakusleiho aurrean galga jarrita dagoen amaren galderaren erantzuna. Zer eta orratz-takoidun zapatak.

- Holakoxeak gustatzen zaizkit neuri ama. Eta zeuk ere sarriago jantzi beharko zenituzke.

Horixe erantzunaren azken puntua. Nondik atara ete du hau gustu hau nire alaba honek, noren antza ete du hori dioenean.

-Tira, ume, goazen aurrera, zapata kontuak baino ez zaizkit falta-eta gaurkoa biribiltzeko.

Alaba doa orain murduskatuz, mar-marrean, bai ba, ni handi izan nadinean, eta hori laster izango da ama, holakoxe zapatak erabiliko ditut, guapa-guapa joango naiz, eta jende guztia neuri begira egongo da.

Ez du Aintzanez kalean zeresana eman gura eta etxerako itxiko ditu alabari eman beharreko azalpenak eta aholkuak. Badu zereginik bitartean eta bidean. Baita gauez loa hartu eta deskantsatzeko beharrezana ere.

Tunelaren hezetasuna nabaritzen du Aintzanez sudur mintzetan. Tunelaren iluntasuna betazaletan zama astun. Haren estutasuna saihetsen kontra ia-ia. Geldi dago, mugitu gura izan arren, geldi, oinak zoruko galipotean iltzatuta bailitu. Belarriak zabal-zabalik nahinondik etorri daitekeen hotsaren zain. Bera bezala, mundua, azpimundua, gelditu egin dela ematen du. Eman ematen du, halako baten baina hots ia entzunezina datorkio. Geroago eta entzungarriagoa izango den hotsa. Hotsa. Zaratotsa. Pauso-hotsa. Takoi-hotsa. Bildur-hotsa.

Pare bat hilabete lehenago bere curriculuma txukuntzen eta orrazten zebilen Aintzane, enegarrenez, azkeneko trebakuntza, titulu, lan eta esperientziak aurreko zerrendari itsatsiz. Dena ondo gordeta, kopia bikoitza badaezpada, bata ordenagailuan, bestea *pendrivean*. Paperean inprimatuta zer jazo ere, bere aurrean mahai bete paper, orri pasan dabil.

Ikasketetan, Ekonomia eta Finantza lizentziaduna, Business Administration masterra, ondo kostatako masterra, zentzu guztietan. Hizkuntza ezagupenetan, euskarazko EGA, ingelesezko Proficiency, frantsesezko DELF B2. Teorian bakarrik ez dela frogatzeko bere buruari berbetan dabilkio hizkuntzok erabiliz. Antzeko egoerak irudikatzen ditu eta gero hizkuntza batean zein bestean azaldu, azken buruan, ondo etorriko zait nire lan-elkarrizketetarako diotso bere buruari, buruaren alde baikorrari, ezezkorrak kontuz ibiltzeko diotso, beharbada txinera apurren bat ere ondo etorriko litzaiokeela eta. Arrazoia duzu diotso baikorrak, globalizazioak eta munduko ekonomiak darabiltzaten jira-birak kontuan hartuta. Zer globalizazio eta globalizaziondo, diotso ezkorak, etxetik hurren dagoen lana lanik onena zuretzat. Eta bidekurutzean gelditu da Aintzane.

Kurutzebidea curriculumaren hurrengo atala izan da, lan-esperientziena hain zuzen ere, aurreko atalek aurreikusiko ez zuketena bideetatik joan da eta. Ikasketak amaitu eta langile gurako gehienek baino lehenago, hori bai, sei hilabeterako praktika-kontratua hizki larriko multinazionalean. Sei hilabete eta hileko sei ehun euroko soldata, hizki xeheko soldata izan ere, aho bete hortzekin ixteko modukoa, eta pozik egon gero, asko ikasiko duzu hemen eta. Astobeharrak egin, bulegoan eta gero etxerako, bai asko ikasiko dut zama-lanetan.

Argazkia jarri ez jarri curriculumean, horixe auzi eztabaidagarrienetako bat lan munduan, eta ez jartzea erabagiko du azkenean.

Curriculumari azken erreposoa egin, gorde eta klik baten bialdu du azken lan-  
eskaintzaren eskaera-orriari itsatsita. Pare bat segundoko kontua izan da. Pare bat segundo  
eternitatea iraun dezakeen itxaronaldia hasteko. Pare bat segundo luzaz iraun dezakeen  
lanaldia lortzeko.

Handik pare bat egunetara helduko zaio erantzuna, berak uste baino azkarrago. Bihozkada  
batek esan dio laster erantzutearenak baiezkoa dakarrela berarekin. Eta bai, arrazoi izan du  
bere barruak, baietz, lanposturako baietza hartu du erantzuntzat. Baietz eta gura duenean  
hasi daitekeela lanean esan diote, bihar etzi baino hobeto. Elkarrizketa bat egin egingo  
diotela, baina hori izapide hutsa besterik ez dela izango, seguru gaude. Baietz eta bihar  
bertan goizeko hamarretan agertuko dela lan-lekuan erantzun die.

Eta hor hasi da elkarrizketa. Itxura ona dauka lan berriak, lan eremua, lan baldintzak eta  
soldata. Zerbitzu enpresa bat da, zabalkuntza eta berrikuntza aldiak dabil eta bere ardura  
izango da horretarako egitasmoak eta planak sortu eta euroi buru ematea, egin gurako  
bezeroekin aurrez-aurrezko zein teknologia berrien bidezko hartu-eman estua izatea, maila  
guztietako langile eta zuzendaritzako kideekin batera lan egitea, denok elkar ondo hartuta.  
Elkarrizketari errematea emateko, hara non, zure curriculuma baizen erakargarria zara  
aipatu diote. Zerbaitek tenk egin dio belarri mintzetan. Ez zuen argazkirik bialdu  
curriculumarekin batera, eta zertara dator orain hori. Lekuz eta denporaz kanpoko  
konplimendua iritzi dio, eta paso eman dio, belarri zolietan gorde eta gero badaezpada.

Enpresako bulegoak, biltegiak eta abarrekoak erakutsi dizkiote ondoren, eraikinean hara  
eta hona, gora eta behera eraman dute. Jende askori eskua eman eta irribarre egin dio,  
irribarre neurritsua lehen egunean, berak holan erabagita. Aurkezpenak egin eta lankide  
askoren izen-abizenak esan dizkiote, izen-abizen lartxo lehen egunerako, ahal duenik eta

gehienena bere barruko artxihoan gorde eta gogorarazten ahaleginduko da lehen egunetik gehiago, hori ere berak holan erabagita.

Harat-honat dabilela konturatu egin da konturatu gizonezkoek osotzen dutela beharginen gehiengoa. Formal-informal jantzita daude gizonezkoek, nahas-mahasean, aldez aurretik ondo antolatutako ausazko bat bailitz. Andrazkoengan ostera nabarmena da uniformerako joera, gona-trajea edo praka-trajea, aldez aurretik nork edo nork ondo antolatu eta ausazko izatea itxiko ez duena. Eta traje labur zein luzeen barrenetan orratz-takoidun zapatak, haruntz-honuntz dabilzala takoi-hotsen oihartzuna zoru-hormetan. Hori guzti hori begien aurrez aurre eta betertzetik ikusiko du. Berari ere buruz buru eta betertzetik begiraten diotela ikusiko du ikusi. Ez daki zer dela eta begiraten dioten horrela, baina horrelako begiradei erreparatzen die.

Takoi-hotsa eta berbotsa gaueko tunel luzeetan. Bildurraren oihartzuna tuneletan. Nire zapatakadak gelditu egin ziren berbotsoi trabarik ez egiteko eta zaratotsok nondik zetozen hobeto antzemateko. Ez nintzen atzera begiraten ausartzen, zamaren zurruntasuna nire bildurrarekin bat eginda zebilen. Alborakako mugimendu laburrak baino ezin zituen nire samak egin eta horien bidez ikusi nezakeen, eta begi pare anizkunak nire barrandan zeuden.

Begiak itxi eta hegan egiteari ekin, horixe nire desira zorigaiztoko uneotan, baina astun eta zoruari iltzatuta sentitzen nuen neure burua.

Hilabeteak aurrera eta begirada zorrotzez eta erabakimen are eta zorrotzagoz dihardu lanean Aintzaneke. Enpresaren asmoetan ondo kidetuta, harekin bat egiten duela sentitzen du. Zorroztasuna eta malgutasuna egoki txirikordatuta aurrera darrai egitasmoen otzara ehuntzen. Lankideak, otzara betetzera datozen arrautzak bailiran, bata bestea urratuz

kraskatu ez daitezzen, kontuz eta mimoz tratatzen ditu. Ekin eta ekin, egin gurako bezeroak egiatzko bezeroak dira dagoeneko, era berean sendo eta kurioso-kurioso gobernatzen ditu, inor ere ez dadin otzaratik kanpora sentidu.

Horrek zeregin guztiok betetzeko enpresan beharrean orduak eta orduak egin behar dituela argi dago. Bere burua ere ondo zaindu beharra duela argi eta garbi dakusa Aintzanek. Dotore eta era batera eroso jantzita joan, behatzak estutu eta orkatilak desorekan jarriko dizkion zapatarik erabili ez. Atsedenerako tartek hartu, begiak pantailatik aldendu, jarrera arteztu, bizkarrezurra zuzendu. Dena moropilduta bere burua zaintzeko egitasmoa ere ondo bete dadin. Ederto daki-eta deskuidatuz gero hauts eginda helduko dela etxera, eta han ere zereginak zain, eta geroxeago gaua ere zain.

Zuzendaritzatik letorkiokenari adi-adi, badaki-eta zabalkuntza eta berrikuntza aldiari dabilen enpresan apar-bitsetan egon zaitezkeela egun baten, lur jota eta azpiratuta egon hurrengo egunean. Sentsoreek diotsenetik handikako mezu eta bibrazioak onak eta atseginak dira, onak eta atseginak gehienak, badator etorri kirrinka apurren bat ere. Begiak zabal-zabalik, haien aurpegierak zer adieraziko, onarpenezko begitarrea ala gaitzespeneko keinua, bietatik zein. Hori guzti hori begien aurrez aurre eta betertzetik ikusiko du. Berari ere buruz buru eta betertzetik begiratzen diotela ikusiko du ikusi.

Besteen begiradak batez ere hanka-oinetarantz zuzentzen direla konturatu da, begirada zuzenak inondik ere. Begiradei jarraituz, bere oinetara begira jarriko da; praka barrenek darakuskiten orkatila fin eta ondo markatuak, setazko galtzerdi gardenak, belusezko zapata beltzak zentimetro biko takoi zabalekoak. Hori da berak ikusten duena. Ezin asmatu besteek ikusten dutena. Ez daki zer dela eta begiratzen dioten horrela, baina horrelako begiradei erreparatzen die.

Takoi-hotsa geroago eta ozenago, geroago eta hurrago. Haren oihartzunak betazaletako pertsianak altxarazi egin dizkio. Saihetsak hegabanatu egin dira. Zoruko galipotea belartza amultsu bilakatu. Oinak hego bihurtu. Arineketa betean doa. Estutasuna zabalduz doa. Tunelaren amaierako argi izpia dakusa. Tunelaren amaierako argi izpia. Horrelaxe azaldu izan dute ikuskizun hori heriotza hegian egon diren hainbat eta hainbatek. Eta berriro balaztada. Arnasestuka eta izerditan blai esnatuko da Aintzane.

Zuzendariak batzarrerako deia egingo dio handik egun batzuetara. Ezustean harrapatu du deiak eta ez dio zer dela eta galdetzeko astirik ere eman, baietz erantzuteko astia baino ez du izan. Edozein batzarretarako gai-zerrenda alde zurretik zehatz-mehatz egitera eta aurkeztera ohituta, batzarrera esku hutsik doalako sentipenaz joango da. Dena dela, bera profesional bete-betea izanik ez dio hari hutsunerik antzeman dakion aukerarik emango.

Eraikineko planta noblean dago zuzendaritza, hainbat gela eta bulegotan bananduta, tartean egitasmo-buruarena, hau da, berea. Berenetik urten eta pauso irmoz doa zuzendariarenera. Ez da takoi-hotsik entzuten, belusaren fru-fru fina besterik ez, eta zuzendaria jabetu denerako atean suabe-suabe joka dabilkio egitasmo-burua.

Zuzendariak, bere jarlekutik altxatu, eskua luzatu eta aurrez aurreko aulkian jartzeko keinua egin dio Aintzeneri. Egun on batak besteari opatu, zer moduzkoak gero, dena da irribarre eta manera malatsa. Sarrerakoak amaitutzat emanda, berbetan hasi zaio zuzendaria.

-Lehenengo eta behin, bai neure aldetik zein zuzendaritzako beste guztion partetik, geure eskerrona agertu behar dizugu. Orain arte zeuk egindako lana itzela izan da, enpresa hedatzen eta hedatzen doa, balantzeek eta estatistikek berez hitz egiten dute, eta

aurrerantzean ere zeu gutartean izatea gurako genuke- esan dio jarraian, esan beharrekoa aurrez ondo errepasatu duenaren tonuaz.

-Eskerrik asko bene-benetan. Aukera paregabea izan da neuretzat enpresa honetan lan egin ahal izatea, eta hori frogatzeko, zeuk ondo diozun legez gogoz eta zorrotz ekin diot beharrari, helburuak jarri eta eurok lortzeko buru belarri ekinez, beti ere lantaldearekin ondo hartuta- erantzun dio Aintzane, berak ere jarraian eta hark esandako gurako genuke alegiazko hori aintzat hartuta.

-Egia da bai, zorrotasunez eta era berean malgutasunez diharduzu, lanerako giro ona sortzeko gai izan zara, eta gurea moduko enpresetan tentsio puntu eta uneak egon badauden arren, eta gu ez gara salbuespen, giro ona eta adeitsua susmatzen da orokorrean- jarraitu du zuzendariak.

Koipelustre ederra iritzita hari, isilik eta harbera gelditu da Aintzane, jarrai dezala, hartu dezala berak aurrea esanez bezala, hark esandako orokorrean horrek partikularrean beste zer edo zer esan gura duela susmatuz.

-Besteenganako duzun zorrotasun eta malgutasunez aparte, zure erakargarritasuna ere erakutsi ezazula gurako genuke, jakin badakigu-eta enpresaren erantzukizun eta balioak, serioak eurak, hau da, barruko muinak, langileon itxurarekin zerikusia duela, enpresaren zein langileen erakargarritasuna kate bereko begiak direla, bezeroek zein langileek lehen begi kolpean dakusatena enpresak zaindu beharra duela, alegia- aurrera zuzendariak.

Inguru-minguruetan dabilkiola iritzi dio Aintzane eta muinera lehenbailehen heldu dadin isilik jarraitzea baino gauza hobetik ez.

Kostatu zaio kostatu apur bat besteari berbak berreskuratzea, eztultxo artean eta txistua iruntziz egin du aurrera.



-Kosta egiten zait hau zuri esatea, zeuk txarto ez hartzerik gurako nuke, badiotsut berriro, zure lana itzela da, ez du beste ezerk hori gitxietsiko, zutaz jaso ditugun iritzi gehien-gehienak aldekoak izan dira, baina badira egon kontuan hartuez gero zure jarduera hobetuko luketen aholku batzuk ere- jarraitu du halan holan.

Honaino helduta, etenbako hinki-hanka eteteko onena berba egitea iritzita, Aintzanek zorrotz,

-Harira jota, kexarik bai nire lanaren kontra?

-Ez, ez, horrelakorik ez, ezta pentsatu ere, ez dago ezer zure lanaren kontra, bueno, zeure kontra ere ez, egia esan ez da zeure-zeure kontra, tira zeure alde konkretu baten kontra bai, ez kontra-kontra, hobetu eta edertu dezakezun alde bat baino ez da.

Zuzendariarena entzun ahala, kolpean eta trumilka datozkio Aintzaneri enpresako atea zeharkatu zueneko egunetik gehiago entzundakoak, bestela bezala esandakoak izan ere, eta ikusitakoak, zuzen eta zeharretik begiratutakoak izan ere. Zure curriculuma bezain erakargarria zara. Orratz-takoidun zapatarik ez daramatzaten oinetarako zehar-begiradak. Hau da hau gero. Hauxe da hauxe esku artean darabilguna.

Bitartean esku-liburuxka bat luzatu dio zuzendariak.

-Begira, hementxe daukazu enpresako barne-protokoloa, lankideon jokabide-jantzi-itxura eta abarrei dagokiena, beharbada gaur baino lehenago eman behar izan nizuna- bere burua pixka bat zurituz. – Irakurri, lanerako lagungarria izango zaizulakoan gaude.

Barne-protokoloa entzun eta barreari emateko gogoak, hori entzun eta sutan jartzeko gogoak bat egin dute Aintzanerengan, ez da baina gogook agertzeko unea. Eskeinutako esku-liburuxka hartu eta eskuztatuko du.

-Ondo baino hobeto ezagutzen ditut zabalkuntza aldian dauden enpresen protokoloak, zeuk eta zuzendaritzakoek primeran dakizuen legez. Beste guztia bost neuri, berdin-berdin

etorriko naiz bihar lanera. Eta zeuon barne-protokolo hori, neure abokatuaren esku itxiko dut, itzelean ibiliko da berau aztertzen- aurpegian irribarrea galdu barik Aintzanek.

Aulkitik altxatu eta artez-arte egin du alde, zuzendaritzako atea suabe-suabe itxita. Pauso tinkoen oihartzuna eta belusaren fru-fru hotsa besterik ez da entzuten solairuaren zoruhormetan.

Gauean inoiz baino hobeto egingo du lo, lo sakon eta suspergarria izango da bere ametsen protagonista bakarra. Eta indarberrituta ekingo dio bere protokoloa betetzeari hurrengo egunetan.